

EUSKAL HERRIKO SAGARDO TXAPELKETA HERRIKOIA

Andoainen egin zen, irailaren 24an. Berrehun pertsonak osatu zuten herri epaimahaia, eta guztira 36 sagardotegitako sagardoak dastatu zituzten afari eder batean, giro paregabean.

Euskal Herriko 2. Sagardo Txapelketa Herrikoia Andoaingo Zumea plazan antolatu zuten. Hernaniko Akarregi sagardotegia izan zen irabazlea; bigarrena Astigarragako Lizzagelditu zen, eta hirugarrena, Hernaniko Itxas-Buru. Guztira, Euskal Herriko 36 sagardotegitako sagardoak dastatu ziren txapelketan. Finalaren aurretik, hiru finalurreko egin ziren, eta, horietako bakoitzean, 36 sagardo horietako 12 sagardo dastatu ziren, zozketa bidez erabakita. Finalurrekoetan puntuazio onena lortu zuten 12 sagardoak sailkatu ziren finalerako.

36 sagardotegietako sagardoekin afaltzera bildu ziren berrehun lagunek dastatu eta puntuatu zituzten sagardo horiek, afari eder batean. Herritarrek parte hartu zuten txapelketako epai-

mahaian, eta sagardoa gustukoa izatea izan zen epaimahaikide izateko baldintza bakarra.

Afaltzera eseri, eta atera zituzten sagardoak dastatu eta nork bere gustu eta iritzia zen arabera eman zuten puntuazioa, batetik hamarrera finalurrekoetan eta bostetik hamarrera finalean, lagunarteko giroan. Ez zen txapelketa ofiziala izan, baina aukera eman zuten herritar ugari iritzia jakiteko, eta hori «oso interesgarria» izan zen sagardogileentzat.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatu zuen txapelketa, eta, afari menua zehazteko garaian, Basatxerri eta Lurlan elkarten laguntza izan zuen. Afaltzen hasi orduko, sagardoa mahaira ateratzen hasi ziren, eta jendeak sagardoari buruzko bere puntuazioa eman zuen zein sagardotegitako sagardoa dastatzen ari zen jakin gabe, azken klasifikazioa jakin arte.

zioa eman zuen zein sagardotegitako sagardoa dastatzen ari zen jakin gabe, azken klasifikazioa jakin arte.

Garai bateko ohitura

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak lehengo ohitura bati heldu eta 2015ean antolatu zuen Euskal Herriko lehen Sagardo Txapelketa Herrikoia. Orduan ere 32 sagardotegik parte hartu zuten. Garai batean egiten ziren horrelako txapelketak, eta 1967tik aurrera zerbait herri txapelketa antolatu zituen orduko sagardogileen elkarteak, hainbat herriekin elkarlanean. Sare hori berreskuratzea da asmoa.

Herriz herri egiten diren eta sare horretan sartzeko interesa duten txapelketekin eta Sagardo Eguneekin elkarlanean antolatu du Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzarekin eta Hazi fundazioarekin elkarlanean eta Andoaingo, Ordiziako, Azpeitiko eta Zarauzko udalen laguntzarekin.



Euskal Herriko 2. Sagardo Txapelketa Herrikoian eginiko sari banaketa ekitaldia. GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA